

Eskolako Agenda 21

LASARTE-ORIA

2015-2016 IKASTURTEA

ENERGIA



Aurtengo ikasturtean, Lasarte-Oriako Lehen Hezkuntza ikasleak **ENERGIA** aukeratu dugu gai nagusia bezala Eskola Agenda 21 programan landu ahal izateko. Programa honek jada zazpigarren urtea du gure artean.

Jarduera asko egin ditugu gure bizimoduan energiak duen garrantziaz jabetzeko eta era egokian erabiltzen ikasteko: gure etxeetan zein energia mota ezberdinak erabiltzen ditugun ohartu gara, gure auzoan argiak duen garrantziaz ere bai, kaleko argiteria aztertu dugu, herritarrei ere galdeketa ezberdinak egin dizkiegu, beraien iritziak jasotzeko asmoz eta osagarri gisa irteera ezberdinak egin ditugu.

Herriko kudeaketa aztertzeaz gain, beste ardatz batzuen inguruan ere aritu gara:

- Eskolako curriculumaren berrikuntzan.
- Eskola-ingurunearen kudeaketa iraunkorrean.
- Herriko kudeaketaren parte hartzean.




Landutako gaiak

Ikasturte hasieran, gaia aurkeztu eta ikastetxeko partaide guztiak barneratu dituen egitasmoa antolatu genuen, Ingurumen Batzordea, ikasle, irakasle, guraso eta irakasle ez diren langileez osatua.

Ikastetxean gaia landu eta ikasmaila desberdinetan gauza asko ikasi ditugu. Besteak beste:

- Urak eta haizeak makinak mugitzeko eta elektrizitatea lortzeko balio dutela ikasi dugu. Elektrizitateak gure bizitzan duen garrantziaz ere jabetu gara. Energia berriztagarriak eta ez-berriztagarriak ezagutu eta bakoitzaren abantailak eta desabantailak ezagutu ditugu. Gainera, guk ere bizitzeko energia behar dugula ohartu gara eta energia hori elikagaietatik lortzen dugula.
- Familietan ere galdeketa batzuk egin ditugu, etxeetan energia nola kontsumitzen den jakiteko, eta familia portzentaia handi batek energia aurrezteko jokabide egokiak aurkezten baditu ere, beste familia askok energia gutxiago kontsumitzen saiatu beharko luke. Jenderi ohiturak aldatzea ere kosta egiten zaiola ohartu gara.
- Elektrizitatea, gas naturala eta gasolina dira gehien erabiltzen diren energia motak. Etxea berotzeko nagusiki gas naturala erabiltzen da. Egurra eta eguzki energia berriz, oso gutxi erabiltzen dira. Energia gastua erraz kontrola daitekeen zerbait izan arren, gure eguneroko bizitza ez dugu behar bezala jokatzen eta behar duguna baino energia gehiago gastatzen dugu. Energia murriztuz, ingurumena zainduko dugu eta dirua aurreztu.





- ❑ Gehiegizko energia erabilerak sor ditzakeen ondorioez, berotegi-efektua areagotzea, klima aldaketa eragitea... jabetu gara eta elikagaiak urrutitik ekartzeak suposatzen duen energia kontsumo izugarriaz eta bertako elikagaiak kontsumitzeak dituen abantailak ezagutu ditugu.
- ❑ Gure kaleetako argiteria aztertu dugu. Eskolan ikasi dugu argi instalazioak oso desberdinak izan daitezkeela eta mota bakoitzak dituen abantaila eta desabantailak landu ditugu. Jarraian, kalera atera gara herrian zer nolako argiteria dugun ikustera. Udaletxearen gastuaren gehiengoa argiterirako erabiltzen da, beraz argi kutsadura jaisteaz gain, garrantzitsua da ere, kontsumoa jaitea.
- ❑ Energia aurrezteko egiten diren kanpainak jendeak ez ditu gehiegi ezagutzen, ezta Udalak zer egiten duen energia aurrezteko ere.



EKINTZA OSAGARRIAK ETA IRTEERAK


Herrian egindako azterketaren osagarri modura, energiaren mundua oso zabala denez, talde ezberdinek ekintza osagarri eta bisita batzuk burutu ditugu:

- ❑ Energia eta elikadurak duten zerikusiaz jabetzeko eta iazko gaia ez ahazteko, elikadura tailerra egin dugu. Urtaro bakoitzean elikagai batzuk ekoizten direla jabetu gara eta nahiz eta guk supermerkatuetan beti denetatik aurkitzeko aukera izan, garaian garaikoak kontsumitzeak duen garrantziaz jabetzeko aukera izan dugu.
- ❑ Usurbilgo Lanbide Eskolara ere bisitak egin ditugu. Bertan, energia berriztagarriei buruzko proiektu eta ideia asko erakutsi zizkiguten: haize-errotak, plaka fotovoltaikoak eta termikoak bereizten... Harrigarria iruditu zitzaigun institutu osoa beraien egindako proiektuetatik buru hornitzea. Aldez aurretik genituen ideiak baztertu eta energia berriztagarriek etorkizun baikorra dutela jabetu ginen.
- ❑ Eta gaia borobiltzeko eta ikasitako finkatzeko, proposatu diguten "Energiaren Jolasa"-rekin aritu gara gelaz gela.



Ikasleen arteko foroa

Kontatu dizkizuegun lanak burutu ondoren, bildutako informazioarekin balorazio bat egin dugu ikasgelan ideia orokorrak eta proposamen zehatzak biltzeko. Ondoren, Maiatzaren 13an, bi eskoletako ordezkariak Manuel Lekuona Kultur Etxean bildu gara guztien emaitzak bateratzeko.



KONPROMISOAK BATERATUTA


Ingurumena zaintzekoetan, herri lasai eta iraunkor bat lortzeko eta bizi kalitatea hobetzeko, guztion parte hartzea beharrezkoa da; horregatik, betetzen saiatuko garen hainbat konpromiso hartu ditugu, eskola barnean eta kanpoan betetzeko:

- 1. Argi naturala aprobetxatzen saiatuko gara. Eta gelako argiak itzaliko ditugu gelatik ateratzen garen bakoitzean.**
- 2. Ordenagailuak, telebista eta beste etxe-tresna elektrikoak itzaliko ditugu erabili eta gero, ez ditugu stand-by egoeran utziko.**
- 3. Ibilbide luzeetan, garraio publikoa erabiltzen saiatuko gara eta motzetan aldiz, bizikletaz edo oinez mugituko gara autoaren erabilera baztertuz, baita eskolara joateko.**
- 4. Energia galerarik ez izateko atek eta leihoak itxiko ditugu berogailua jarrita dagoenean.**
- 5. Bainatu ordez dutxatu egingo gara eta uraren tenperatura kontrolatzeko termostatoa erabiliko da, 36 ° jarriko dugu.**
- 6. Gure kontsumo orokorra nolakoa den hausnartuko dugu jasangarriagoa izan dadin.**
- 7. Ahalik eta hondakin gehien birziklatzen saiatuko gara.**





8. Berrito karga daitezkeen pilak erabiliko ditugu eta argindarra edota pilak dituzten jostailuekin soilik asteburutan jolastuko dugu.
9. Aukera dagoenean, materiala ekologikoez egindako gauzak erabiliko ditugu.
10. Etxean gaiaz hitz egiteko konpromisoa hartzen dugu.



Bestelako konpromisoen artean, eskolak edo etxeko artean betetzeko, beste hauek ditugu:

1. Erosketak egitera etxeko poltsak eramango ditugu.
2. Bonbilak hondatu ahala kontsumo baxukoak erosiko ditugu.
3. Ontziratutako gabeko produktuak erosten saiatuko gara.
4. Hozkailua, garbigailua eta plater garbigailua aldatu behar izanez gero, A motatakoak erosiko ditugu. Hauek soilik ondo beteta daudenean jarriko ditugu martxan eta lehorgailua gainera, ahalik eta gutxien erabiliko dugu.
5. Etxeko tenperatura kontrolatzeko termostatoa erabiliko dugu eta 18-20° inguruan programatuko dugu.
6. Papera eta fotokopiak bi aldeetatik egingo ditugu, paper kontsumoa murrizteko.



Udalari zuzenduriko ekarpenak

Hona hemen aurtengo eskaerak gaiaren arabera antolatuta:

Farolak:

- **Herriko farolen azterketa eta egokitzapena, hau da:**
 - Hondatuta daudenak konpondu , adibidez, Urdaburu plazakoak.
 - Tximistarreta Parkean dauden fokoak "itsugarriak" dira. Gure ustez, gehiegizko argia dago.
 - Aztertu ematen duten argiaren orientazioa.
 - Farolak egokitzen joan, alegia, argia gorantz joaten uzten ez duten horietakoak. Farola zaharrei txapela modukoa ipiniz. Eta herrian dauden globo itxurako farolak lehen bait lehen aldatu.
 - Farola kopurua neurri eta beharren arabera jarri.
 - Benetan beharrezkoak direnak soilik piztu, beti ere herritarren segurtasuna bermatuz.
- **Kaleko argiztapen sistema egokia jarri, mantendu eta behar denean berritu.**



Bidegorriak:

- **Bidegorri sarea zabaldu, batez ere ikastetxeetara iritsi ahal izateko.**
- **Bidegorrietan ibiltzeko bizikleta alokairua sustatu.**

Ekimenak – kontzientziazio kanpainak:

- **Kontsumo baxuko bonbilak erabiltzeko kanpaina bat egin, bide batez bonbila bat oparituz etxe bakoitzeko.**





- Orohar energia aurrezteari buruzko informazio gehiago herritarrentzat, aldi berean eskola, udaletxe, kultur etxe, denda, semaforo, Gabonetako...argietan aldaketak eginez, hau da, kontsumo baxuko bonbilak jarritz.
- Informazio eta dirulaguntzak ere etxeko elektratesnak aldatzeko kontsumo baxuagoengatik, argiteria ere, isolamendua...
- Energia aurrezten duten herritarrei zergetan beharpenak egin.

Energia Berriztagarriak:

- Udal eraikinetako teilatuetan eguzki panelak jarri eta dirulaguntzak bideratu jarri daitezkeen bestelako guneetarako.
- Eraikin berriak energia berriztagarri sistemekin eraiki arazi.



Bestelakoak:

- Gure ikastetxeetan argi-sistema egokitzea. Gaur egun pasilloetako argiak pizten dira mugimenduarekin, argitasuna behar den ala ez kontutan hartu gabe.
- Gabonetan argi gutxiago gastatu. Apaingarriak gustukoak ditugu, baina apaingarriak pizten badira farolak itzali.



Hau da ikasturte honetan guztion artean burututako lanaren laburpena. Eskerrik asko gure iritzia plazaratzeko ematen diguzuen aukeragatik.



